

Ezpalak

JON TORNER

Kukubiltxo antzerki konpainiak webgune berria aurkeztu du: www.kukubiltxo.com. Antzezlanean inguruko informazioa, argazkiak eta bideo irudiak aurkituko dituzue bertan, besteak beste. Orrialde nagusian, *Haritzaren azalera zehatza* lan berriari buruzko azalpen eta irudiak bildu dituzte.

Eugenio Arruti, Rogelio Gordon, Ignacio Ugarte, Francisco Domingo Marques, Aureliano de Beruete eta Ramon Elorriaga artisten obrak bildu dituzte besteak beste Arabako Arte Ederren museoan. 2006-2007an eskuratutako lanak dira guztiak. Urriaren 5a arte izango dira ikusgai.



180 gazte bilduko ditu ACT Eszena Sortzaile Berrien Nazioarteko Jaialdiak

BILBO ETA BARAKALDOKO Eszena Sortzaile Berrien Nazioarteko Jaialdiaren (ACT) bosgarren edizioa hilaren 28tik 31ra bitartean egingo da.



Ohi bezala, sortzaile gazteen lan berrien lehiaketa, Europako arte eszenikoen eskolen topaketa, pedagogo ezagunek eskaintako ikastaropak eta *Dantzine*

bideo-dantza lehiaketak osatuko dute egitaraua. ACT jaialdiak 180 lagun bilduko ditu La Fundación eta Bilborock aretoetan, Barakaldo antzokian eta San Frantzisko eta Clara Campoamor kultur zentroetan. Egitarau osoa <http://actfestival.com> webgunean kontsulta dezakezue.

Alpha Blondy Mundumiran izango da

MUNDUMIRA, munduko kulturen festa, Bergaran ospatuko da ekainaren 6tik 8ra bitartean. Ekimen ugari izango da hiru egun horietan: kontzertuak, ikus-entzunezko emanaldiak, artisautza eta gastronomia azokak, hitzaldiak, erakusketak... Kontzertuei dagokienez, Boli Kostako (Afrika) Alpha Blondy reggae taldeak disko berria aurkeztuko du ekainaren 6an. Egitarau osoa: www.mundumirafesta.com.

Javier Gonzalez de Durana, Artium museoko zuzendariak *Noticias de Alava*: «Guggenheimen museo eredu ez dut gustuko. Kudeaketa eta programazioari dagokionez hain autonomia gutxi izatea ez dut gustuko, ezta kontsumo erraz eta azkarreko entretenimendu industriara bideratua izatea. Guggenheimek ikusgarritasun handia du, guk baino askoz ere handiagoa, baina ez dauka sektore artistikoaren aldetik Artiumek duen onarpena».

Harkaitz Cano idazlea elkarrizketatu du Berriak: «Faltan sumatzen dut idazleari idaztea eskatzen zitzaion garaia. Egun ez da espero idazle batek idaztea, baizik eta lekuetan agertzea, edo ez dakit zeren ordezkaritza izatea (...) Interneten ateratako artikulua ez du egunkari batean ateratakoak adina hauts harrotzen. Aukeraren demasiak kontrara jotzen du, zentsura gisa»

Uda 08
Gabriel Aresti euskaltegia*

Eskaintza zabal

- * Barmetegiak Bilbo eta Bakailun
- * Ikastaro trinkoak 3 eta 5 ordukoak
- * Autoikaskuntza
- * Tailerrak
- * Gaste zein heldu
- * Goizez eta arratsaldez
- * Kostalla, abiadura eta iraila

25 urte! www.gabrielaresti.com Elkarlan

Done Bikendi 2 - 4. solairua 48001 - Bilbo - tel: 94 423 75 91

Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Ontza bat txokolate dastatzeko gogozAitzol Aramaio, *Un poco de chocolate* (Tusitala y mundo ficción)

Sentimenduak eta iritziak nahas-mahas ditut Aitzol Aramaio zinegilearen *Un poco de chocolate* filmaz idaztean. Baliteke, filmaren jatorrizko lan literarioak (*SPrako tranbia*) utzi zizkidan arrasto nahasiek filmari buruzko sentipen antzekoak eragin izana. Egiari zor, liburuak ez ninduen liluratu –ez dut gustatu ez zitzaidala esan nahi–, haatik, ez zen izango liburuaren eskasiaz, nire eskasiaz baizik. Iritziak iritzi, gustuak gustu, betiere.

Filmaren izena ez da *SPrako tranbia*, ezta Kirmen Uribe idazleak filma euskaraz balitz izenda zezakeen *Ontza bat txokolate* ere. Kirmen Uriberi ondo ulertzer, eta egia bada, jatorrizko hizkuntzatik –poesia denean behintzat– beste hizkuntzara itzultze jardunbidean beste obra bat sortzen dela, kasuon, euskarazkoa eta gaztelaniazkoa, bi liburu dira. Eta, izan ere, *SPrako tranbia* literatura poetikoa da.

Aitzol Aramaio euskarazko edo gaztelaniazko liburuan oinarritu al du filma? Edo bietan? Berbak eta itaunak. Nik ez dut erdarazko bertsioa irakurri edonola ere.

Dena dela, aitortzeko, Aitzol Aramaio nik buruan nuen istorioaren egitura lausoa (bir)eraikitzen eta argitzen lagundu dit. Demagun, *Un poco de chocolate* euskarazko istorioan oinarritua dela. Nik irakurri nuena istorio surrealisten ehundutako istorioa zen. Neronek oso-osorik hauteman ez nuen mundu surrealista hura, errealitatekarri du Aramaio. Alegia, Unai Elorriagak eraiki zuen istorioa surrealista goa zen Aramaio zeluloidean eskaini diguna baino. Edo nik hauteman ahal izan dudana baino. Areago Aitzolen filmaren hezurdura Elorriagaren eleberriaren hezurdura baino aiseago baneratu dut. Beharbada, irakurle motza naizen aldetik, eta txokolatea horren gustukoa izaki, filmarekin gehiago gozatu dut liburuarekin baino.

Un poco de chocolate dastatzen hasi eta lehen sekuentziek apur bat aztoratu ninduten. Marcos pertsonaia herriko plazara iristean kameraren –Marcosen begirada– dardarizoa desegokia begitandu zitzaidan. Badakit Marcos noraezean zebilela munduan, baina hasierako mugimendu dudazkoek zinez aztoratu ninduten.

Filmaren eszenografia gustatu zait, zinez gustatu ere. Pertsonaia nagusiek sentipen desberdinak sorrarazi dizkidate alabaina. Hector Alterioren eta Julieta Serranoren interpretazioak egokiak atzeman ditut. Beren eskarmentua eta talentua neurri-neurrikoak dira Lucasen eta Mariaren larruan sartzeko. *SPrako tranbia* edo *Un poco de chocolate* asmatu zirenerako pertsonaia hauen baitan zeuden bi aktore puska hauek, ia inork berauetan sartzan lagundu edo zuzendu beharrik gabe. Nolabait esanda hau ere.

Ezin gauza bera esan Daniel Brühl (Marcos) eta Barbara Goenagaren (Roma) rolei buruz, lehenaren kasuan bereziki. Zuzendari zailduago baten eskarmentua eta gidaritzan hartu dut faltan euren interpretazioetan. Bon, nire sentipenak besterik ez dira. Euskal zinema amiñi bat ezagututa Aitzolen lana oso duina irudituko zait. Ea hurrengoan Ontza bat txokolate dastatzeko parada dugun! Ummm...



gure!
arteak
euskaraz

